

PRENTSA OHARRA, LANBIDE – EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZA PROGRAMEN DIRU-LAGUNTZEN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2015

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren 2015eko ekitaldiko Enplegu eta prestakuntza programen diru-laguntzen fiskalizazio txostena aho batez onartu du.

Txosten hau osotasunean ulertu ahal izateko gogoan izan behar da 2009an erakunde publiko modura sortu zenetik, Lanbidek aldaketa handiak izan dituela eskumen, egitura eta nortasun juridikoari dagokionez. Aldaketa hauen ostean eta HKEEk 2014an argitara emandako txostenean egindako gomendioari jarraikiz, 2015ean Erakundearen Lanpostuen zerrenda mamitu eta onartu zen. Gainera, 2013an Lanbideren 2013-2016 bitarteko Plan Estrategikoa onartu zen. Honek guztiak erakundea zuzenean kudeatzeko lan-zama izugarri gehitzea ekarri du. Lanbidek hausnarketa eta eraldaketa prozesua hasi du, datozen urteetan erakunde autonomoaren jardute-ildoak finkatuko dituen.

HKEEk 2015eko ekitaldiko enplegu eta prestakuntza programen diru-laguntzak aztertu ditu, hurrenez hurren 70 milioi euro eta 58 milioi euroenak. HKEEk kontrol prozedurak eta mekanismoak aztertuta hobegarri diren alderdiak azpimarratu ditu.

Enplegu programei ematen zaizkien laguntzei dagokienez, HKEEk orokortasunez gomendatzen du programetan esku hartzen duten teknikariek egozten dituzten orduen gaineko kontrolak hobetu daitezela. Gainera, hainbat irizpen ematen ditu nagusiki laguntzen oinarri-arau arautzaileen diseinuari eta horien justifikazio, izapidetzeko epe eta emandako kopuruak egokitzeko aldaketei dagozkienak.

Enplegu-prestakuntzarako laguntzei dagokienez, HKEEk gomendio orokorrak eman ditu eskabideak balioztatzeke eta diru-laguntza zehazteko irizpideen hainbat alderdiren puntuazioaren gainean; baita, aztertu diren programetarako beste gomendio espezifikoko batzuk ere.

Berebat, txostenak hobetu beharrekoak diren beste zenbait atal azpimarratu ditu, hala nola, aurrekontuen oroitidazkietan aztertu diren diru-laguntza lerroen eta parametroen Plan Estrategikorik eta emandako diru-laguntzen ebaluaziorik ez izatea, horien guztien eraginkortasuna eta efikazia neurtzeko bide emango dutenak. Honezaz guztiaz gain, oinarri arautzaileak Enplegu eta Gizarte-politika Sailak onartu behar dituela uste du eta aztertu diren hainbat programaren egikaritzak izan duen atzeraldia gailendu du.